

JENTILLA TA KRISTAUA

Bein baten, jentilbaratzen jentil indartsu bat bizi ei zan, beste jentil guztiak menpean eukazana. Bere astia Jentilbaratzetik Leizadi´ra, eta Leizadi´tik Jentilbaratzera emoten ei eban.

Alango baten, kristauen artera joatea bururatu jakon, ia an berari burrukan egiteko gizonik ere zan.

Joan ei zan Lazkau aldera, eta bidean amalau urteko mutiko bat aurkitu ei eban:

—I (zu)..., gizona az i (zara zu)?

—Oraindiño ez, gaztetxoa naz-ta.

Lazkau´tik beera, Senpe aldera joiala, gizon zar bat aurkitu eban:

—I (zu)..., gizona az i (zara zu)?

Urteetan aurrera joantxoa naiago (nago) ni. Beasain´go olan aurkituko dozak (dozuz) gizon-gizonak.

Bai eta gentil ori Beasain´go olara joan, eta an be gizonik ete zan itandu.

Kristau errementari batek urten eutsan. Eta jentillak: —Nire ukabilla biurtzeko dan gizonik ba´dok (da), urten dagiala.

— Bai... ! Itxaroik apur baten, nik atzamar bigaz eldu bitartean. Eta alan sutan goritutako kirrikaz (tenaza) surretik eldu jentillar, eta surra moztu ei eutsan.

Jentil ori karrazika, Jentil baratzera. Eta bere lagunak:

— Zer egin daue (dautzue)?

— Arte gaiztoak jaukezak (daukez) kristauak.

Eta ordutik jentillak kristauai bildurra artu ei eutsen.

Irakurlea: Iraide Mezo, Gazetaria, Zornotza